MANCOMUNIDAD URIBE KOSTA MANKOMUNITATEA
BARRIKA · BERANGO · GORLIZ · LEMOIZ · PLENTZIA · SOPELA · URDULIZ

# *LEHENDAKARITZA DEKRETUA*
# *DECRETO DE PRESIDENCIA*

Hijas de la Caridad erakundearen Purísima Concepción Zentroaren 2025eko ekainaren 4an egindako dirulaguntza-eskaera aztertu da.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen 2025erako aurrekontuan dirulaguntzak emateko partida izendun bat dago, Hijas de la Caridad erakundearen Purísima Concepción Zentroaren alde hitzarmena duena (IFZ: R4800322B).

2025eko ekainaren 11ko txosten teknikoa aztertu da.

Idazkariaren txostena eta erakunde horri 5.000 euroko dirulaguntza ematearen aldeko fiskalizazio-txostena aztertu dira, bai eta elkarte horrekin sinatutako hitzarmenaren zirriborroa ere.

Kontuan hartu da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa.

Eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

**EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.-**
Zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea onuradun hauei, 2025erako Korporazioaren gastuen aurrekontuaren 2310.4810002 aplikazioaren kontura, adierazitako zenbatekoetan:

| Erakundearen izena | Zenbatekoa |
|---|---|
| Hijas de la Caridad erakundearen Purísima Concepción Zentroa | 5.000 € |

Vista la solicitud de subvención realizada por el Centro Purísima Concepción de las Hijas de la Caridad en fecha 4 de junio de 2025.

Dada cuenta de que en el Presupuesto de la Mancomunidad de Servicios de Uribe Kosta para el año 2025 existe una partida nominativa de concesión de subvenciones con convenio a favor del Centro Purísima Concepción de las Hijas de la Caridad, con NIF R4800322B.

Visto el informe técnico con fecha 11 de junio de 2025.

Visto el informe de secretaria y el informe de fiscalización favorable a la concesión de una subvención por importe de 5.000 euros a favor de esta entidad, así como el borrador del Convenio con la citada asociación.

Considerando lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Y en uso de las atribuciones que me confiere el artículo 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

**RESUELVO:**

**PRIMERO.-**
Otorgar la subvención directa nominativa con cargo a la aplicación 2310.4810002 del presupuesto de gastos de la Corporación para 2025 a los siguientes beneficiarios por las cantidades que se indican:

| Nombre entidad | Importe |
|---|---|
| Centro Purísima Concepción de las Hijas de la Caridad | 5.000 € |

Gatzarriñe, 4 - 48600 Sopela
idazkaritza@uribekosta.eus
**uribekosta.eus**
94 676 26 74

Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-23 12:30:42(UTC) Fecha: 23/07/2025 12:30:42 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GURUZNE CARRASSON TORRONTEGUI Data: 2025-07-30 08:02:37(UTC) Fecha: 30/07/2025 08:02:37 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JOANNA DIAZ BENITO Data: 2025-07-30 08:04:46(UTC) Fecha: 30/07/2025 08:04:46 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0524-2025 Dekretuen data / Fecha decreto: 30/07/2025
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación: {71b10249-d6cd-4c55-b283-7d410eb41c65} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

**BIGARRENA.-** Lankidetza-hitzarmenaren testua onartzea, eta, beraz, dirulaguntza formalizatzea Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen eta Hijas de la Caridad erakundearen Purísima Concepción Zentroaren (IFZ: R4800322B) arteko hitzarmenean. Hitzarmen horretan, dirulaguntza aplikatzeko eta justifikatzeko emakidadunaren betebeharrak eta konpromisoak zehazten dira, 2026ko MARTXOAREN 31tik aurrerako ondorioekin. Hitzarmena dirulaguntzaren oinarri arautzailea izango da.

**HIRUGARRENA.-** 5.000 euroko gastua onartzea eta xedatzea, eta kopuru hori osorik ordaintzeko agintzea Hijas de la Caridad erakundearen Purísima Concepción Zentroari, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen 2025eko ekitaldirako aurrekontuko 2310.4810002 aurrekontu-partidaren kargura.

**LAUGARRENA.-** Hitzarmen hau Mankomunitatearen gardentasunaren atarian argitaratzea eta Hijas de la Caridad erakundearen Purísima Concepción Zentroari jakinaraztea.

**BOSGARRENA.-** Emakidari buruzko informazioa ematea Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari.

**SEIGARRENA.-** Erakunde interesdunari adieraztea administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen horren aurka Aukerako Berraztertzeko Errekurtsoa aurkez dakioke presidenteari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorriz; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, txandaren arabera dagokion epaitegian, 2 hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera,

**SEGUNDO.-** Aprobar el texto del Convenio de colaboración y formalizar por tanto la subvención en el correspondiente convenio entre la Mancomunidad de Servicios de Uribe Kosta y el Centro Purísima Concepción de las Hijas de la Caridad, con NIF R4800322B en el que se detallan las obligaciones y compromisos de la concesionaria para aplicar la subvención y justificarla con efectos a fecha 31 de MARZO de 2026. El convenio tendrá carácter de bases reguladoras de la subvención.

**TERCERO.-** Aprobar y disponer el gasto de 5.000 euros y ordenar el pago íntegro de dicha cantidad al Centro Purísima Concepción de las Hijas de la Caridad, con cargo a la partida presupuestaria 2310.4810002 del Presupuesto de la Mancomunidad de Servicios de Uribe Kosta para 2025 del presupuesto municipal.

**CUARTO.-** Publicar el presente Convenio en el portal de la transparencia de la Mancomunidad y notificar el mismo al Centro Purísima Concepción de las Hijas de la Caridad.

**QUINTO.-** Suministrar la información sobre la concesión a la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

**SEXTO.-** Significar a la entidad interesada que, contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse Recurso Potestativo de Reposición ante la Presidencia en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de este acto de conformidad con los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o bien directamente Recurso Contencioso Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao que por turno corresponda, en el plazo de 2 meses contados, igualmente, a partir del día

Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-23 12:30:42(UTC) Fecha: 23/07/2025 12:30:42 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GURUZNE CARRASSON TORRONTEGUI Data: 2025-07-30 08:02:37(UTC) Fecha: 30/07/2025 08:02:37 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JOANNA DIAZ BENITO Data: 2025-07-30 08:04:46(UTC) Fecha: 30/07/2025 08:04:46 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0524-2025 Dekretuen data / Fecha decreto: 30/07/2025
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {71b10249-d6cd-4c55-b283-7d410eb41c65} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Berraztertzeko errekurtsorik jartzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri lehenengoa berariaz ebatzi arte edo presuntzioz ezetsi arte.

Era berean, bere eskubideak hobeto defendatzeko komenigarritzat jotzen duen beste edozein errekurtso edo akzio jarri ahal izango da.

Mankomunitateko lehendakariak aginduta eta izenpetuta.

Sopelan, sinadura elektronikoaren egunean.

siguiente a la recepción de esta notificación de conformidad con la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

De formularse Recurso de Reposición, no se podrá interponer Recurso Contencioso Administrativo hasta que el primero sea resuelto expresamente o se haya producido su desestimación presunta.

Asimismo, podrá interponerse cualquier otro recurso o acción que considere conveniente para la mejor defensa de sus derechos.

Lo que manda y firma la Sra. Presidenta de la Mancomunidad.

En Sopela, a fecha de la firma electrónica.

Nire aurrean / Ante mí

Lehendakaria /
La Presidenta

Guruzne Carrasson Torrontegi

Idazkari Kontu-hartzailea
La Secretaria-Interventora

Joanna Diaz Benito

Sinatzaile / Firmante: URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Data: 2025-07-23 12:30:42(UTC) Fecha: 23/07/2025 12:30:42 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: GURUZNE CARRASSON TORRONTEGUI Data: 2025-07-30 08:02:37(UTC) Fecha: 30/07/2025 08:02:37 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JOANNA DIAZ BENITO Data: 2025-07-30 08:04:46(UTC) Fecha: 30/07/2025 08:04:46 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 0524-2025 Dekretuen data / Fecha decreto: 30/07/2025
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {71b10249-d6cd-4c55-b283-7d410eb41c65} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.